

## **BATZORDE** **EXEKUTIBOA**

### **ARAUKETA**

Administrazio Kontseiluaren Araudiaren 12 artikuluak arautzen du Batzorde Exekutiboa.

### **ESKUMENAK**

Batzorde Exekutiboak ondoko eskumenak ditu:

- a) Dagozkion erabakiak hartuko ditu Administrazio Kontseiluak eskuordetu dizkion gaitasunei buruz.
- b) Sozietatearen kudeaketa eta zuzendaritza arruntaren jarraipena eta gainbegiraketa egingo du; gainera, partaidetutakoekiko koordinazioa egokia dela zainduko du, betiere horien eta Sozietatearen interesak aintzat hartuta.
- c) Enpresa-estrategiak zer jarraibideren arabera definitu behar den aztertu eta Administrazio Kontseiluari proposatuko dio, eta hori praktikan jartzen dela gainbegiratuko du.
- d) Kontseiluak eskuordetu ala ez, ondoko arloen inguruko gaien buruz hausnartzea eta Administrazio Kontseiluari jakinaraztea:
  - Sozietatearen urteko banakako aurrekontua eta aurrekontu bateratua, eta negozio-lerro bakoitzerako aurreikuspenak xehatu beharko dira.
  - Ekonomia kudeaketari, aurrekontu-desbideratzei eta, kasua balitz, horiek zuzentzeko neurrien proposamenari buruzko hileko jarraipena.
  - Inbertsio material edo finantzario garrantzitsuak eta horien justifikazio ekonomikoa.
  - Beste sozietate batzuekin egiten diren aliantzak edo hartzen diren erabakiak, zenbatekoa edo izaera dela-eta Sozietatearentzat garrantzitsuak badira.

- Sozietatearentzat garrantzia duten finantza-eragiketak.
  - Epe ertainean jarduteko programa.
  - Enpresako unitate operatiboek helburuak lortu dituzten edo ez baloratzea.
  - Partaidetutakoak direla eta, d) atalean aipatutako gaien inguruko jarraipena eta balorazioa.
- e) Sozietateak berezko akzioak eskuratu edo besterendu behar dituen erabakitzea, horren inguruan Batzar Nagusiak eman duen baimenarekin bat etorriz; gainera, kontseilari bat izenda dezake berezko akzioak saldu edo erosteko erabakia hartu eta izapidetzeko, eta legearen arabera egokia denenean, gainbegiratu eta baimenduko ditu partaidetutakoek berezko edo Sozietatearen akzioak eskuratu edo besterentzeko hartzen dituzten akordioak.

## **OSAKETA**

- Antonio Hernández Callejas jn. (kontseilari exekutiboa) - Presidentea
- Demetrio Carceller Arce jn. (kanpoko jabetza-kontseilaria) - Batzordekidea
- José Nieto de la Cierva jn. (kanpoko jabetza-kontseilaria) - Batzordekidea
- José Antonio Segurado García jn. (kanpoko kontseilari independentea) - Batzordekidea
- Luis Peña Pazos jn. (kide ez den idazkaria)